




# *Pedro eta Otsoa*

Sergei Prokófiev



## Gida didaktikoa

 **Gran Teatre del Liceu**  
Servicio Educativo  
M. Antònia Guardiet

---

## AURKIBIDEA

<b>1. Ikuskizunaren inguruko aipamen orokorrak</b> .....	<b>3</b>
1.1. Kontzertuak ondo baliatzeko jarraibideak .....	3
1.2. Kontzertuan portaera egokia errazteko aholkuak .....	3
<b>2. Sergei Prokófiev</b> .....	<b>4</b>
<b>3. Pedro eta otsoa</b> .....	<b>5</b>
3.1. Lanaren sorrera .....	5
3.2. Protagonistak .....	6
3.3. Ipuinaren argumentua.....	6
<b>4. Proposamen didaktikoak</b> .....	<b>7</b>
4.1. Kontzertuaren aurreko jarduerak .....	8
4.2. Berehalako hausnarketak eta antzezenaren ondorengo jarduerak .....	8
<b>5. Planteamendua: kontzertuaren aurreko prestaketa</b> .....	<b>8</b>
5.1. Ipuinaren irakurketa edota azalpena .....	8
5.2. Goazen kontzertura! .....	9
5.3. Zer iradokitzen dizute pertsonaia hauek? .....	9
5.4. Musika-tresnek euren burua aurkezten dute.....	10
<b>6. Korapiloa eta amaiera: Berehalako hausnarketak eta antzezenaren ondorengo jarduerak</b> .....	<b>11</b>
6.1. Kritikoarena egin dezagun.....	11
6.2. Ezagutu dezagun Sergei Prokófiev .....	11
6.3. “Soinuren batek Pedoren arreta erakarri zuen” .....	12
6.4. Zein musika-tresna aukeratuko zenuke pertsonaiak ordezkatzeko?.....	13
6.5. “Katua isilean hurbildu zitzaion txoritxoari...” .....	13
6.6. Adi entzunez gero, ahatea entzungo duzue .....	14
6.7. Nor da nor? .....	14
6.8. Azken antzezena.....	15
<b>7. Helburu didaktikoak eta curriculum edukiak</b> .....	<b>16</b>
7.1. Helburu didaktikoak .....	16
7.2. Curriculum edukiak .....	16

---

## 1. Ikuskizunaren inguruko aipamen orokorrak

ABAOk “txikientzako” programan eskaintzen dizkien ikuskizunek beti hartzen dituzte kontuan musika-interpretazioen kalitatea eta eszenografiaren ikuste-aberastasuna, baita ikuskizunak umeen interes eta gaitasunari egokitzea ere.

Gida didaktikoek oinarrizko helburu batzuk lortu nahi dituzte, irakaskuntza jarduera hobetzeraren:

- Ikasleei berariaz zuzendutako proposamen desberdinak jasoko dituen materiala maisu-maistrei helaraztea.
- Musika egileak eta lanak hobeto ezagutzen lagunduko duten elementu kontzeptualak eskaintzea.
- Familien esku eskolako material berbera jartzea, eskaintzen diren musika kontzertuetan erreferentzia gisa erabili ahal izan dezaten.

Programazioaren ikuskizunek berez ez daukate ulertzeko inolako arazorik, ezta iraupenari buruzkorik ere. Haurren gustu eta beharrak kontuan harturik sortuak izan dira. Komenigarria da umeak antzezpenaren aurretik eta ondoren prestatzea, eszenatokian ikusiko dutena hobeto ulertu eta gozatuko dutela ziurtatzearen. Nolabait esateko, zuzeneko kontzertu batean parte hartzean ikasleek lortu beharreko bi helburu nagusiri eragin behar ziaie:

- Musika zuzenean gozatzea.
- Artista eta artelanak aintzat hartzen eta errespetatzen ikastea.

### 1.1. Kontzertuak ondo baliatzeko jarraibideak

- Musikan aditutako irakasleak ABAOren weberra (<http://www.abao.org/>) joko du, eta bertatik jaitsi ahal izango du ikasleentzako gida didaktikoa.
- Maisu bakoitzak ikasleak lanean jartzen lagunduko dion aurreko jarduera motibagarrietariko bat-edo aukeratuko du, beti ere ikastaldea (maila, ikasleen adina, musikari buruz daukaten ezagutza, ezarritako helburuak,...) kontuan hartuta.
- Kontzertura joan ondoren, etxean edota eskolan, entzundako musika aztertu, gogoratu eta berriro gozatzeko unea etorriko da, gida didaktikoak eskaintzen dituen bestelako jardueretariko bat edo beste erabilita.

### 1.2. Kontzertuan portaera egokia errazteko aholkuak

Arau orok berau ulertzen eta betetzen lagundu eta erraztuko duen elkarrizketarekin batera joan behar du. Programazioetan beti agertzen diren jarduera, balio eta arauak buruzko edukiak irakasle gisa geureganatu ditugun asmo onen zerrenda baino askoz gehiago dira. Heziketan agertzen diren arlo garrantzitsuenen lagin txiki bat dira, etxean zein eskolan beti landu beharrekoak. Norberaren edo-eta taldearen berezko egoeretatik araua ulertzen eta barneratzen lagunduko dugu.

Jarrera-edukiak beti agertzen dira jarduera didaktikoetan.

Irakasleak, ikasleek “kontzertuetara joaten” ikasi behar dutela jakitun, arau hauen bere eginaraziko die:

- Musikarien lana errespetatzea eta kontzertua isilik entzutea. Musikari bati egin diezaioketuen oparirik onena da arretaz entzutea.
- Aretoan dauden bitartean litxarreriarik ez jatea, ikasgelan ere holakorik jaten ez dugulako.

- Antzezenak dirauen bitartean aretoan egotea, ez bada larrialdi bat gertatzen dela.
- Entzule gisa isiltasuna bada musikari/abeslariari egiten diogun oparia, ikusle gisa haiek egindako lan ona txaloen bidez (oihurik eta txisturik gabe) aitortuko dugu.
- Era ordenatu eta adeitsuan aretora sartu eta bertatik irten.
- Antzezpenean zehar argazkirik zein grabaziorik ez egitea.

Hauak bezalako neurriek ikasleen portaera ona errazten dute:

- Aretora sartu aurretik, ikasleen arteko giro barea sortu behar da.
- Ikasleak modu “estrategikoan” eseraraziko ditugu, eta arreta berezia eskainiko diegu arretari eusteko zailtasunak dituztenei.
- Maisuak edo maistrak egokiro aukeratuko du bere eserlekua, talde osoa erraz kontrolatu eta, beharrezkoa balitz, azkar jokatu ahal izateko.

## 2. Sergei Prokófiev

1891ko apirilaren 24an Ukrainiako Sontzovka herri txikian jaio zen, Don ibaitik eta Dnipropetrovsk hiritik gertu. Aita nekazaritza-ingeniari zuen eta ama piano-jole. Amak sartu zuen musikaren munduan. Txikitatik musikarako gaitasun handia erakutsi zuen: erraz irakurri eta jo egiten zituen Mozart eta Beethovenen partiturak eta gustukoa zuen konposatzea. Sergeik lehen sinfonia 9 urte zituela konposatu zuen.

Umeak zeukan dohainaren jakitun, gurasoek musika irakasle on bat kontratatu zuten: Reinhold Glier; honek aurrera egiten lagundu zion, eta aldi berean jorrarazi zizkion eskola teorikoak eta musika konposizio askeak; hauen bidez bere musika nortasun handia ez ezik, pianoa jotzeko gaitasun bikaina ere erakutsi ahal izan zuen.

14 urte zituela amarekin batera San Petersburgo hirira joan zen, bertako Kontserbatorioan ikasi ahal izateko, bertan Rimsky-Korsakov musikagileak eskolak ematen baitzituen. Sergeiren ausardi konposatzaileak eta izpiritu bihurriak talka egin zuten Kontserbatorioko irakaskuntza akademizistarekin. 18 urte zituela erabaki zuen konposizioa bere kabuz ikastea, eta kontserbatorioa utzi zuen. Orkestra-zuzendaritza ikasten eta piano ikasketak sakontzen jarraitu zuen.

Kontserbatorioan Rubinstein piano-saria irabazitakoan, amak Londrerako bidaia bat oparitu zion, eta bertan Diaghilev ezagutu zuen. Errusiar koreografo handiarekin zein Europarekin edukitako lehen harremana izan.

Errusiar Iraultzaren urte gogorren ostean (1916-18), Sergei Prokófievek erabaki zuen lasaitasun handiagoarekin jaioterritik urrun lan egitea. AEBetara joan zen, eta bertan Chicagoko operako zuzendariak agindu zion italiar fabula bat konposatzeko, “Hiru laranjan amodioa” (1919).

1923an Parísen kokatu zen, hiri honetan kritikak oso ondo baloratzen zuen. Bere kontzertuetako interpretazioen ezaugarri nagusiak arrakasta eta eskandalua izan ziren: bere maisutasuna ukalezina bazen ere, pianoari ematen zizkion kolpe oldarkorrek, konposatzen zituen erritmo ulergaitzek eta erakusten zuen molde sarkastikoak etsai asko ekarri zizkioten.

Prokófieven lanek harridura eragiten zuten: bai konposizio abangoardista eta ausartenek, esate baterako, “Suite Escita” izenekoak (1914), baita klasizismo garbienarekin idatzitakoek ere, adibidez, bere zazpi sinfonietariko lehenak, “Klasikoa” izenekoak (1918). Azken honek Haydn eta Mozarten vienar musikari egiten dio gorazarre. Hirugarren mugimenduko “Gavotta” (1’28”) eta “Finale molto vivace” (4”) zatiek oso egitura argia daukate, eta musika didaktikarentzako oso egokiak dira.

---

1928. urtean bakarlari gisa egindako biran Errusiak egin zion ongi etorri arranditsuak bere borondatezko erbestea birplanteatzera eraman zuen. 30eko hamarkadatik aurrera, Stalinek eta Sobietar Musikagileen Batasunak musika ekoizpenei jarrera komunikatibo eta baikorrak ezarri zizkieten, gizarte berriaren bertuteak goraipatzeko asmoz, eta musika esperimenezkoaren erabat kontra egin zuten. Errusian abioan jarritako ekonomia, kultura eta politika aldaketak erronka bat izan ziren Prokófievrentzat. 1933ko udaberrian, mundu osoan zehar kontzertu asko eman ostean, azkenean erabaki zuen aberrira itzultzea. Moskuko agintari komunistek musikagilearen itzulera garaipentzat jo zuten.

“Errealismo sozialista” delakoaren musika mailako inposaketen gainetik, Sergei Prokófievrek azkartasunez eta zorrotz musika sortzen jarraitu zuen. Honen froga dira filmetako musika: “Kije tenientea” (1934), “Alexander Nevsky” (1939); “Ivan Izugarria” (1945); “Romeo eta Julieta” baleta (1935); eta “Pedro eta otsoa” musika ipuina (1936).

Zoritxarra heldu zitzaion Prokófievi behin Bigarren Mundu Gerra amaituta, musikagilearen aldaketa gogoak erregimen estalinistak ezarritako “musika diktaduraren” jarraibide ideologiko estuekin talka egin zuenean. 5. eta 6. sinfoniak ez ziren inoiz izan sobietar erregimenaren gustukoak. “Benetako gizon baten historia” opera (1948) debekatu zuten. Musikagilea antidemokratiko, lizun eta burgestzat jo zuten, sobietar herriaren arte gustuetatik urrundua.

1953ko martxoaren 5ean hil zen, garuneko odoljario batek jota, Stalin hil eta hurrengo egunean. Aldiberekotasun honen ondorioz, sobietar prentsak ez zuen bere heriotzaren berri eman egun batzuk igaro arte.

### 3. *Pedro eta Otsoa*

#### 3.1. Lanaren sorrera

Errusiak tradizio luzea dauka umeentzako musika lanak sortzeari dagokionez. Honen froga dira honako lan hauek: P. Txaikovsky, “Gazteriarentzako bilduma” (24 konposizio pianorako, 1877); M. Moussorgsky, “Umeen gela” (umeentzako zazpi abesti, 1873an sortuak); S. Prokófiev, “Pedro eta otsoa” (ipuin sinfonikoa, 1936); A. Katxaturian, (1903-1978) “Hautzaroko bilduma”; D. Kabalevsky, “Umeentzako hamabost konposizio” (pianorakoak, 1904); Borodinek, Cuik eta Lyadovek ere pianorako konposizioak egin zituzten.

Sergei Prokófiev behin betiko Errusiara itzuli zenean, 1933an, umeentzako antzerkiaren jarraibideen araberrako kontzertu batera joan zen Moskun, bertan P. Txaikovskyren “Intxaur-hauskailua” baleta antzeztu zelarik. Lehen emanalditik, 1936ko otsailean, Antzokiko arduradun eta orkestraren zuzendari Natalia Saz umeak orkestra sinfonikoaren soinuekin ohitzeko musika baten bila ari zen, gogoratzen erraza izango zen konposizio baten bidez. Sazek Prokófievi proposatu zion lan hori konposatzea.

Nataliak iradoki zion argumentuaren lehen ideia izan zen sobietar gazte erakunde bateko kide batek otso bat harrapatzen zuela, musika-tresna desberdinak animalia baten bidez identifikatu zitezten, esate baterako zeharkako txirula txori bat izan zitekeela. Musikagileari ideia gustatu zitzaion, baina ez idatzitako testua, Sergeik uste baitzuen testua errimatuegia zela. Hori dela-eta, musikagileak berak idatzi zuen testua. Astebetean pianorako konposizioa bukatu egin zuen, eta zazpi egun geroago orkestrazioa.

*Pedro eta Otsoa* ipuin sinfonikoa 1936ko maiatzaren 2an antzeztu zen lehen aldiz, musikagileak berak zuzenduta, Moskuko Orkestra Filarmonikoa jota eta Natalia Sazek kontatuta.

---

Bere izaera didaktikoagatik eta lañotasunagatik Sobietar Batasunak zein Europak konposizioa onartu zuten. Musikak txikiak zein helduak bereganatu egiten ditu, eta maisutasun handiarekin egokitzen ditu gutxieneko musika baliabide batzuk umeentzako gai herriko bati. Argumentuak moral iraultzailea adierazten du, gutxi gorabehera esaten duelako ez dagoela heroi izaterik gutxieneko erronka eta arrisku batzuk gure egiten ez baditugu, hots, aginteari aurre egiten ez badiogu.

### 3.2. Protagonistak

Prokófíevék helburu didaktikoa lortu zuen ipuinaren pertsonaia bakoitza orkestrako instrumentu batzuetako tinbre egokienari lotuz.

Pedrorena, istorioaren protagonista, hari-instrumentuek (biolinak, biolak, biolontxeloak eta kontrabaxuak) egiten dute, nolabaiteko erabakitasun eta ausardia adierazten dituen doinu laño baten bidez. Zalutasun handiarekin hegan egiten duen txoritxoak zailtasunik gabe ahopekako kantuak antzeratzen dituen zeharkako txirula da. Urmaelean zoriontsu murgiltzen den ahate burugabe eta zalapartatsua oboe sudurkariak antzeztzen du. Katu goseti eta isila behe-erregistroko klarinete bat da, doinu iluna jotzen duena. Aitona fagot kexatia da, kezkatzen duten kontuak nabarmendu nahi dituen doinu bat jotzen duena. Otso grisa begirunea eta beldurra eragiten dituen konposizioa jotzen duten hiru tronparen bidez gorpuzten da. Azkenik, ehiztariak eta euren tiroak tinbalek eta dunbalak antzeztzen dituzte.

### 3.3. Ipuinaren argumentua

Goiz eder batean, Pedrok lorategiko atea ireki zuen, eta oinez zelai orlegi zabal batzuetara iritsi zen.

Zuhaitz handi baten adar altuenaren gainean txori txiki bat zegoen, Pedroren laguna zena:

- Dena lasai dago hemen goian.

Bitartean ahate bat zoriontsu murgiltzen zen zelaiaren erdian zegoen urmaelean.

Txoritxoak hegan egin zuen belarriaren gainean pausatzeko, eta hegoak altxatuta, ahateari esan zion:

- Zein txori mota zara zu, hegan egiten ez dakizun hori?
- Eta zein txori mota zara zu, igeri egiten ez dakizun hori? - erantzun zion ahateak, uretan murgiltzearekin batera.

Elkarri mokokoa aritu ziren luze, norberaren gaitasunak elkarri erakutsiz, hots batek Pedroren arreta bereganatu zuen arte. Katua zen, ahogozo eta isilik txoriari hurbiltzen zitzaiona.

- Adi! - egin zuen oihu Pedrok.

Txoritxoak, hegaldi txiki batez, zuhaitzean ezarri zen, onik.

Urmaelaren erditik, ahateak, haserre, karrankaka ari zen. Katua, gosez, goian, zuhaitzean, zegoen txoritxoak zelatatzen zuen.

Une horrexetan, Pedroren aitona agertu zen.

Oso haserre zegoen, loba bakarrik zelaira joan zelako.

- Leku hau arriskutsua da! Basotik otsoren bat atera daiteke, eta txikiegia zara bakarrik ibiltzeko.

- 
- Ni bezalako ume handiak ez gara otsoen beldur, eta zelaietan zehar korrika egitea gustuko dugu.

Baina aitonak besotik heldu zion Pedrori, eta etxera eraman zuen.

Pedro joandakoan, otso gris handi bat irten zen basotik.

Tximista bezala, katua zuhaitzera igo zen, baina ahatea, izututa, urmaeletik atera zen karrankaka, noraezean. Eginahal guztiak egiten bazituen ere, otsoak azkarrago egiten zuen lasterka, eta gero eta gehiago hurbiltzen zitzaion ahate gizajoari, bat-batean irentsi zuen arte!

Lorategiko atearen atzetik Pedrok ikusten zuen gertatzen ari zen guztia.

Etixerantz egin zuen korrika, soka sendo bat hartu eta hormaren gainetik zuhaitzaren adar altuenetara egin zuen jauzi. Orduan, zera esan zion Pedrok txoritxoari:

- Lagundu iezadazu otsoa harrapatzen. Egizu hegan bere buruaren gainetik kontu handiz!

Txoritxoak zalutasun handiarekin egiten zuen hegan, ia-ia otsoaren muturra ukituz; hau saiatzan txoritxoa harrapatzen, baina ezinezkoa zitzaion.

Bitartean, Pedro ausartak sokarekin saltorapilo bat prestatu eta oso-oso geldo jaitsi zuen otsoaren buztana lotu arte. Otsoak, harrapatuta sentitzean, indar gehiagorekin tiratzen zuen, baina mugimendu zakar horiekin soilik lortzen zuen saltorapiloak gehiago estutu zezan.

Orduan, otsoaren atzetik zetozen ehiztari batzuk basotik irten ziren fusilekin tiro egiten.

- Ez egin tiro! Txoritxoak eta biok otsoa harrapatu egin dugu! Lagundu iezaguzue zoologiko batera eramaten.

Behin otsoa askatuta, garaipen-martxari ekin zioten. Pedro, zoriontsu, lehena zihoan; bere atzetik, ehiztariak, otsoa zeramatela, eta martxaren bukaeran, aitona eta katua. Guztien gainetik, txoritxoak pozarren abesten zuen. Adi entzuten baduzue, ahatea karranka entzungo duzue otsoaren sabelean, sabelkeriak jota bizirik irentsi baitzuen.

#### 4. Proposamen didaktikoak

*Pedro eta Otsoa* musika konposizio didaktiko bikaina da. 1936az geroztik mundu osoan zehar bere ekarpen pedagogikoak erakutsi ditu, txikiei zein helduei gustatzen baitzaie.

Sergei Prokófíieven “Pedro eta otsoa” musika ipuin bat da, eta bertan hitza musikaren zerbitzupuan jartzen da, aberastasun handiko sinbiosia sortzeraino.

Aurkezten ditugun jarduera didaktikoak ez daude pentsatuta musika konposizioaren ulermena errazteko, zeren-eta “Pedro eta otsoa” ulertzeko arazorik ez baitago. Proposamenak baliatu behar ditugu lehen entzunaldiaren ulermena prestatzeko eta ondoren gogoratzeko. Sormenezko beste jarduera batzuk eragin behar dituzte, istorioaren haritik abiatuta istorioa berriro bizitzen laguntzeko.

Aurkezten ditugun jarduera didaktiko gehienak iradokizun gisa hartu behar dira, eta ikastaldearen mailari eta beharrei egokitu behar zaizkie. Ikuspegia irekia bada ere, hiru taldeetako lehen jarduerak txikientzat pentsatuta daude, edo behintzat txikientzat egokiak izan daitezke.

---

Gure helburua da interesa piztea eta umeei musika ipuina entzuteko gogoia piztuko dieten erronka txikiak sortzea; ikuskizunaren magiak bizirik irautea, aurreikusitako eduki eta helburu didaktikoak indartzuz.

Ipuin herrikoi/tradizionalen egitura formaletik abiatu gara: planteamendua, korapiloa eta amaiera, beraz, jarduerak aurkeztutako ordena horren arabera antolatu ditugu.

- **Planteamendua:** antzeppenaren aurreko motibazio eta prestaketa jarduerak.
- **Korapiloa eta amaiera:** berehalako musika bizipenaren inguruan hausnartzen laguntzen duten proposamenak garatuko dira, huraosatzen duten testu eta musika mailako osagaiei eragiten dietenak.

#### 4.1. Kontzertuaren aurreko jarduerak

- 1- Ipuinaren irakurketa edo-eta azalpena. (Ikus Argumentu atala, 6. orrialdea).
- 2- Goazen kontzertura! (Ikus Jarrera-edukiak atala, 3. orrialdea).
- 3- Zer iradokitzen dizute pertsonaia hauek? (Ikus “Ezagutu ditzagun pertsonaiak” ariketa, “Soinuak eta musika-tresnak”, 9. orrialdea ).
- 4- Musika-tresnek euren burua aurkezten dute. Zein doinu aukeratuko zenuke bakoitzarentzat? (Ikus “Igarkizunak” ariketa, 10. orrialdea).

#### 4.2. Berehalako hausnarketak eta antzeppenaren ondorengo jarduerak

- 1- Egin dezagun kritikoarena: berehalako bizipen eta iruzkinak (11. orrialdea).
- 2- Ezagutu dezagun Sergei Prokófiev (1891-1953) (Ikus Sergei Prokófieven biografiaren laburpena, 11. orrialdea).
- 3- “Soinuren batek Pedroren arretea erakarri zuen” (Ikus “Soinuak eta musika-tresnak” ariketa, 12. orrialdea).
- 4- Zein musika-tresna aukeratuko zenuke pertsonaia bakoitzarentzat? (Ikus “Egin dezagun musikagilearena!” ariketa, 13. orrialdea).
- 5- “Katua isilean hurbildu zitzaion txoritxoari...” (Ikus “Bi musika-tresna aldi berean asmatzen ditut” ariketa, 13. orrialdea)
- 6- Adi entzunez gero, ahatea entzungo duzue (14. orrialdea).
- 7- Nor da nor? (Ikus “Igarkizunak” ariketa, 14. orrialdea).
- 8- Azken antzezipena (15. orrialdea).

### 5. Planteamendua: kontzertuaren aurreko prestaketa

#### 5.1. Ipuinaren irakurketa edota azalpena

Antzeppenaren aurretik umeei azaldu beharko diegu ipuin bat entzungo dugula. Oso ipuin berezi bat, izan ere istorioa orkestra baten musikaren bidez azalduko digutelako. Parte hartzen duten zazpi pertsonaiak musika-tresna banaren bidez antzeztuko dira, eta tresna bakoitza doinu gogoraeraz baten eta daukan musika kolorearen bidez antzematen da. Ziur ikasleen musika oroimena arazorik gabe protagonistak ezagutzeko gauza izango dela.



---

Adinaren arabera ipuina azaldu edota testua fotokopiatu eta elkarrekin irakurri egingo dugu (*Ikus Pedro eta Otsoa*: Ipuinaren argumentua). Komenigarria izango litzateke amaiera ez kontatzea, ikuskizuna zuzenean ikusteko interesa handituko duen gogoia pizteko .

## 5.2. Goazen kontzertura!

Jarduera honekin tarte bat utzi nahi badugu, kontzertuan zehar jokabide ona eragiten duten arabei buruz eskolan hausnartu eta berauek gogoratzeko, honela gure harrera begirunezkoa izan dadin eta jarduerak emaitza ona eduki dezan lortu nahi dugu. Irteera egin aurretik gogoratu behar dira beti, eta modu agintzailean baino, modu positiboan aurkeztu behar dira.

Ikasleek “kontzertuetara joaten” ikastea nahi badugu, jakinaren gainean jarri behar ditugu, baita arau multzo hori (“Kontzertuan jokabide ona edukitzeko jarraibideak” atalean azaldukoak) bere egin dezaten lortu ere.

## 5.3. Zer iradokitzen dizute pertsonaia hauek?

Ziurrenik gure ikasle gehienek ez dute *Pedro eta Otsoa* ipuina ezagutuko. Ausartu gaituzen haiek musikagileak erabilitako pertsonaia berberekin istorio bat asmatu dezaten. Ahoz asmatuko dute Prokófievек idatzitakoaren antzekoa edo ez izan daitekeen argumentu bat, hartara hurbildu badaiteke ere.

Ikastaldeari istorioaren protagonistak aurkeztuko dizkiogu. Hau egiteko izenak arbelean idatz ditzakegu edota antzezpenean ikusiko dituzten irudi berberak baliatuko ditugu (*Ikus “Pertsonaiak” atala*); zabaldu, plastifikatu eta erabili egin ditzakegu, txotxongiloak bailiran.

Ipuinean erabiltzen diren adjektiboak eta iruzkinak baliatuko ditugu irudiak osatzeko. (*ikus “Ezagutu ditzagun pertsonaiak” ariketa*).

Asmatutako istorioa benetakoaren ados etorrita ala ez, merezi du ikuskizunaren argumentuaren korapiloa azaltzea eta amaiera uztea zuzenean entzun eta bizi dezaten!

### Ezagutu ditzagun pertsonaiak (Ikaslearentzako gidaren 2. orrialdea)

Honakook dituzue ipuinaren protagonistak: Emandako pistekin, irudikatu ezazue euren istorioa:

**Pedro:** Mutil bat kementsu, alai eta oso ausarta.

**Txoritxo:** Pedoren laguna. Txikia. Zalutasun handiarekin egiten du hegan, eta alaitasun handiarekin abesten du.

**Ahatea:** Zorionsua da urmalean murgiltzen denean. Katuarekin haserretu egiten da, eta karranka egiten dio, hark sutan jartzen duenean. Espero ez zuen egoera baten aurrean urduri jartzen da.

**Katua:** Gosetia. Belusezko hankak. Isila, zuhurra eta arretatsua ehizaki baten bila doanean.

**Pedroren aitona:** Adineko gizona, lobagatik kezkatuta, baina pixka bat kexatia.

**Otsoa:** Handia, grisa, ehiztaria,...

**Ehiztariak:** Basoa ezagutzen dute eta fusilak daramatzate.

#### 5.4. Pertsonaiek euren burua aurkezten dute

Ipuinaren pertsonaiak ordezkatzan dituzten musika-tresnak ikasleei aurkezten dizkiegu haiekin bat egin dezaten.

##### **Soinuak eta musika-tresnak (Ikaslearentzako koadernoaren 3. orrialdea)**

Erreparaiezu Sergei Prokófievrek *Pedro eta Otsoa* ipuinerako aukeratu zituen musika-tresnei. Bat edo besteren izena ezagutzen al duzu?

Zein doinu aukeratuko zenuke bakoitzarentzat?

Ikasleek *Pedro eta Otsoa* ipuinaren argumentua eta pertsonaiak ezagutzen dituztenean, eskatu diezaiekegu aukeratu dezatela euren iritzia araberan zein doinu konposatuko zuen Sergei Prokófievrek pertsonaia bakoitzarentzat, beti ere bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Aldez aurretik ikastaldeak aukeratuko dituen ipuinaren hainbat pertsonaia definitzen dituzten zati batzuk entzungo ditugu diskoan. Umeek doinu bakoitzari protagonista bana esleitu beharko diote Galdetuko dugu zergatik iruditzen zaien doinu hori aukeratutako pertsona horri dagokiola, eta saiatuko gara hitzen eta elkarrizketaren bidez, ahal den heinean, musikaren aukera eta ezaugarriak definitu ditzaten. Beti azalduko dugu zein izan zen egileak egin zuen konposizioa (lana protagonista guztiekin egin nahi bada, merezi du talde txikietan aurkeztea).

Talde bat egiteko aurkeztu dugun aukera hau berau banaka ere planteatu daiteke, igarkizun gisa (Ikus "Igarkizunak" jokoak). CDean hiruzpalau protagonistari dagozkien doinuak entzungo ditugu. Bakoitzak dagokion pertsonaia aukeratuko du. Aukeraketari puntuazioa eman diezaiekegu, jokoak erakargarriagoa izan dadin edota dauden zazpien artean doinuen aukeraketa taldeen araberan aldatzea (CDren 1-7. pistak).

##### **Igarkizunak (Ikaslearentzako koadernoaren 4. orrialdea)**

ASMATU <i>Pedro eta Otsoa</i> ipuinaren doinuak	
Orain lau doinu desberdin entzungo dituzu eta aukeratu beharko duzu zein den egokiena pertsonaia hauentzat: aitona, Pedro, katua, otsoa eta txoritxoa. Laukian aukeratu duzun pertsonaia marraztu dezakezu eta bere izena idatzi (aukeratutako pertsonaiak aldatu daitezke)	
1. Doinua	
2. Doinua	
3. Doinua	
4. Doinua	
Zenbat erantzun asmatu duzu?	

---

## 6. Korapiloa eta amaiera: Berehalako hausnarketak eta antzezpeneren ondorengo jarduerak

### 6.1. Egin dezagun kritikoarena: berehalako bizipen eta iruzkinak

Txango edo kontzertu batetik heltzean egiten ditugun lehen galderetariko bat zera da: “Gustatu al zaizue?”, “Zer moduz pasatu al duzue?”

Musikaz zuzenean gozatzeak eta entzuten ikasteak esperimintatu behar diren ohiturak ikastea suposatzen dute. Txango edota kontzertu baten ostean edukitako asebetetze pertsonalaren maila ahoz adieraztea posible izan behar da adin guztietan. Une horrexetan adierazten dira antzeman ez omen diren kontu ugari, baina taldean komentatzean, oroimen berrienean bizirik agertzen direnak (lehen inpresioak jaso behar dira, musika espezialista bertan egon ez arren).

Ikuskizunari buruzko azterketa bat honako kontu hauetarantz bideratu daiteke:

- **Ipuina eta pertsonaiak**
  - Zein da izatea gustatuko litzaizuekeen pertsonaia?
  - Istorioaren bukaera gustatu al zaizue?
  - Zein amaiera idatziko zenukete?
- **Antzezpena eta kontalaria**
  - Zer iruditu zaizue pertsonaiak atzealde beltz baten aurrean egotea?
  - Hizlariak azaltzen zuena ondo ulertzen al zen?
  - Uste al duzue musikariak oso kontzentratuta egon behar direla?
  - Zein musikari zorionduko zenukete ondoen egin duela iruditzen zaizuelako?
  - Musikari bakoitzari eskutitz bat idatzi zeniezaiokete galdetzeko zergatik aukeratu duen musika-tresna hori eta nola ikasi duen jotzen?
- **Norberaren eta taldearen jokabidea**
  - Arretaz entzuten jakin izan dugu?
  - Ondo eserita egon gara?
- **Auditorioa**
  - Aurreko batean egonak zarete Auditorioan?
  - Nolakoa da eraikina? Eta aretoa?
  - .....ari buruzko hobekuntzak proposatzeko edota ikuskizunagatik zoriontzeko eskutitz bat idatzi zeniezaiokete Lizeori.

### 6.2. Ezagutu dezagun Sergei Prokófiev

Jarduera honen helburua da Sergei Prokófiev eta bere lana ezagutzea.

---

Hori dela-eta, bere biografiaren laburpen bat eta “Pedro eta otsoa” ipuinaren azalpen bat egin ditugu. Ikasleek eurek irakur dezakete. Beste aukera bat da hitz batzuk ezabatzea ikasleek asmatu ditzaten.

### **Sergei Prokófiev (1891-1953) (Ikaslearentzako koadernoaren 5. orrialdea)**

*1891ko apirilaren 24an Ukrainiako Sontzovka herri txikian jaio zen.*

*Ama piano-jolea zenez, harekin hasi zen musika ikasten. Sergei txikiari oso erraza zitzaion Mozart eta Beethovenen partiturak irakurtzea eta jotzea, eta gustukoa zuen konposatzea.*

*14 urte zituela amarekin batera San Petersburgoko Kontserbatoriora joan zen. Oso ikasle ona bazen ere, irakasleek ez zituzten ulertzen musika eta konposizioari buruz zeuzkan ideiak.*

*1919-1933 urteetan AEBetan eta Europan zehar bidaiatu zuen, eta bakarlari zein musikagile gisa aritu zen.*

*1933ko udaberrian, mundu osoan zehar kontzertu asko eman ostean, erabaki zuen aberrira, Errusiara, itzultzea. Moskun kokatu zen, eta bertan lanean eta konposatzen jarraitu zuen. Idatzi zituen lan garrantzitsuenetariko bat “Pedro eta otsoa” izan zen (1936).*

*1953ko martxoaren 5ean hil zen.*

*Sergei Prokófievek musika mota asko konposatu zituen: baletak, musika ipuinak, sinfoniak, operak, zinemarako musika,...*

### **Pedro eta Otsoa (Ikaslearentzako koadernoaren 6. orrialdea)**

Umeentzako musika lan ospetsuena “Pedro eta otsoa” da. Prokófievek lortu zuen istorioaren pertsonaia bakoitza orkestraren tresna batzuen tinbre egokienarekin lotzea.

Horrela, Pedro, istorioaren protagonista, hari-taldeak antzezten du: biolinak, biolak, biolontxeloak eta kontrabaxuak. Pedoren laguna den txoritxoarena ahopekako kantu luzeak imitatzen dituen zeharkako txirulak egiten du. Urmaelean zoriontsu igeri egiten duen ahatearena oboeak egiten du. Katu isila erregistro baxuko klarinete batek antzezten du. Aitona fagot kexati xamar bat da. Otsoarena beldurra eragin nahi duten konposizio bat jotzen duten hiru tronpak egiten dute. Azkenik, otsoari tiro egiten dioten ehiztariak tinbalek eta dunbalak antzezten dituzte.

Prokófievek asmatu zuen ipuinaren istorioa. 15 egunetan orkestra osoaren doinuak eta konposizioak sortu zituen. 1936ko maiatzaren 2an lehen aldiz antzeztu zen Moskuko Haur Antzokian, musikagileak berak zuzenduta.

***Pedro eta Otsoa*** txikiei zein helduei gustatzen zaie. Ipuinak irakasten digu bizitzan ausartak izan behar garela eta arazoan aurrean ez garela kikildu behar.

#### **6.3. “Soinuren batek Pedoren arreta erakarri zuen”**

Ipuinaren hitzak atera egingo ditugu, eta ikasleei proposatuko diegu arreta handiarekin entzutea, istorioaren protagonista kementsu eta ausartak egiten duen bezalaxe. Eskatuko diegu musika-tresna bakoitza entzun dezatela, eta soinu bakoitza irudi batekin lotu dezatela (Ikus “Soinuak eta musika-tresnak” ariketa).

Proposamen konplexuago bat da ikasleei eskatzea musika-tresnak entzuten diren ordenaren arabera zerrendatzea (Ikus “Musika-tresnak ordaintzen”).

---

### **Musika-tresnak ordenatzen (Ikaslearentzako koadernoaren 7. orrialdea)**

Orain Sergei Prokófiev errusiar musikagilearen *Pedro eta Otsoa* ipuinaren 6 musika tresna entzungo dituzu. Entzun ahala jarri bakoitzari dagokion zenbakia.

#### 6.4. Zein musika-tresna aukeratuko zenuke bakoitzarentzat?

Bota diezaiegun erronka ikasleei: Sergei Prokófiev bezalako musikagileak gara, eta “Pedro eta otsoa” ipuina konposatu behar dugu. Lau hari-tresna eta perkusio-tresna bat ditugu (Ikus “Egin dezagun musikagilearena” ariketa). Zein lotura ezarriko genuke musika-tresna eta istorioaren pertsonaien artean? Egin duten aukeraketaren arrazoiei buruz galdetuko diegu. Beti eman behar zaie musikagileak hartu zuen konponbidea.

### **Egin dezagun musikagilearena (Ikaslearentzako koadernoaren 8. orrialdea)**

*Pedro eta Otsoa* ipuinaren musika-konposizioa agindu dizute, eta musika-tresna hauek dituzu.

Pertsonaia bakoitzarentzat tresna bana aukeratu behar duzu.

Aldera ezazu zeure aukera Sergei Prokófievrek egin zuenarekin.

#### 6.5. “Katua isilean hurbildu zitzaion txoritxoari...”

Ariketaren helburua musika-tresnak banan-banan entzutea eta ezagutzea bada ere, bizpahiruko taldeka ere agertzen dira, hauetan guztietan zeharkako txirula dagoelarik. Proposamenak helburu dauka aldi berean diharduten bizpahiru musika-tresna entzutea eta antzematea, gehienak haize-tresnen familiakoak dira. Antzematea txirularekin konparatuz egingo da (Ikus “Aldi berean bi musika-tresna asmatzen ditut” ariketa).

Aukeratutako zatiak honakook dira:

Zeharkako txirula eta hari-tresnak	Txoritxoa eta Pedro	CDren 8. pista
Zeharkako txirula eta oboea	Txoritxoa eta ahatea	CDren 9. pista
Zeharkako txirula eta klarineta	Txoritxoa eta katua	CDren 10. pista
Zeharkako txirula, klarineta eta tronpak	Txoritxoa, katua eta otsoa	CDren 11. pista

### **Aldi berean bi musika-tresna asmatzen ditut (Ikaslearentzako koadernoaren 9. orrialdea)**

“Pedro eta otsoa” ipuinaren txoritxoa beste protagonista batzuekin mintzo da. Asma ezazu zein pertsonaia den eta zein musika-tresnak antzezten duen. Jar ezazu zenbakia entzuten dituzun ordenaren arabera.

Musika-tresnak	Ordena
Zeharkako txirula eta hari-tresnak	
Zeharkako txirula eta oboe	
Zeharkako txirula eta klarineta	
Zeharkako txirula eta tronpak	

## 6.6. Adi entzunez gero, ahatea entzungo duzue

Konposizioa arretarekin entzuten baduzue, soinu ahulak, beste batzuk gogorrako intentsitatean gora edota behera egiten duten soinuak, beheranzko edo-eta goranzko eskalak,... entzungo dituzue.

*Pedro eta Otsoa* ipuinaren argumentuak une dibertigarriak eta une dramatikoak dauzka, musika-tresnek antzezten badakitenez, guk adierazten duten musika hitzik gabe ulertu dezakegu. Prokófievrek erabili zituen musika baliabide batzuk gogoratuko ditugu.

Aukeratutako zatiek konposizioaren lau une zehatz gogorarazi nahi dituzte:

Katua azkar igotzen da zuhaitzera, otsoak harrapatu ez dezan	Klarineteak goranzko eskala bat egiten du	CDren 12. pista
Pedrok soka erortzen uzten du otsoa lotzeko	Hari-tresnek “glissando” ahul eta ezti bat egiten du	CDren 13. pista
Otso ankerra iristen da	Hiru tronpak “crescendo” bat jotzen dute	CDren 14. pista
Txoritxoa otsoaren muturreraino jaisten saiatzen da, berau distraitzeko	Zeharkako txirulak beheranzko eskala bat egiten du	CDren 15. pista

Elkarrekin entzungo ditugu zatiak gero asmatu dezaten zein unetan gertatzen ari den. Gorputzarekin zatiak marraztu ditzatela. Ahoz esan dezatela ea doinu-efektua lortuta dagoen.

## 6.7. Nor da nor?

Igarkizunen erantzuna topatzea konposizioaren musika-tresnei buruzko iruzkin bat egiteko modu erraz bat da, baita, aldi berean, erronka eta jolas bat ere.

Ikasleei eskatu diezaiekegu musika-tresnei buruzko igarkizunak eurek asmatu ditzatela (Ikus “Igarkizunak” ariketa).

### **Igarkizunak (Ikaslearentzako koadernoaren 10. orrialdea)**

Haizeak eragiten dit soinua  
Ezagutuko nauzu doinu argi eta gardenagatik.  
Nor naiz? (Txirula)

Atabalaren familiakoa naiz,  
baina hankak dauzkat.  
Entzun nola jotzen nauten  
belarriak estali gabe.

---

### Nortzuk gara? (Tinbalak)

Eguzkia bezain distiratsua naiz  
eta nire tutu bilduarekin  
otso ankerrarena egiten dut.  
Nor naiz? (Tronpa)

Orkestran asko gara,  
arkuekin baina gezirik gabe,  
egur eta harizkoak.  
Nortzuk gara? (Hari-tresnak)

#### 6.8. Azken antzezpena

Ikasleek istorioa ikasi ondoren eta pertsonaia bakoitzaren konposizioak ikasita dauzkatenean, ipuina modu berezian antzeztu dezaten proposatu diezaiekegu, helburua delarik ipuinean zehar ikasitako gai nagusiak birsortzea. Eskatuko diegu ipuinaren protagonistetan oinarrituta istorio bat asmatzeko eta asmatutako ipuinean pertsonaiak agertzen diren bakoitzean, dagokien gaia abestuz antzezteko. Horrela, aitona nekatuta badago, haren doinua modu geldo eta kexatian abestu beharko dute.

Ikastaldea 4/5 laguneko taldeetan banatuko dugu. Talde bakoitzak 10 minutu edukiko ditu asmatutako istorio bat sortzeko. Istorioak gelan azalduko dituzte. Hiru istorio ederrenak aukeratuko ditugu, eta berauek antzezteari ekingo diote.

Pedrok txapela eraman dezake. Aitonak bufanda bat eta makila bat, eta lau animaliak antzezteko kartoi meheaz egindako maskara batzuk erabili daitezke. Hizlari batek asmatutako istorioa azalduko du, eta ikastaldeak pertsona bakoitzaren konposizioa abestuko du berau aipatzen den bakoitzean.

Adibide gisa, asmatutako ipuin bat proposatzen dugu:

Egun eguzkitsua zen. Aitona goiz esnatua zen, eta geldotasunez ireki zuen hozkailua, gosaria prestatzeko.

Txoritxoak kaiola barruan pozik abesten zuen.

Kanpoan, lorategian, katuak nagiak botatzen zituen, erpe zorrotza erakusten zituen bitartean.

- Pedro, - egin zuen oihu aitona - katuari eta ahateari jana ematera joan behar zara.
- Orain altxatuko naiz, dutxatu, etxeko lanak egin eta mandatuak egitera jaitsiko naiz - erantzun zuen Pedrok, lan egiteko gogo gutxi zeukalako.

Bi ordu geroago ahatea eta katua oso urduri zeuden, oraindik ere jateko ezer ez zeukatelako. Ahatea karrankaka ari zen, eta katua tristeki miauka ari zen ate atzean. Basotik otso potolo bat atera zen. Egun hartan jada bi oilo janda zituen aldameneko baserri batean.

Baserriko bi animaliak, gosea zela-eta, zein egoera negargarrian zeuden ikusita, berak konpontzea erabaki zuen: txoritxo eta aitona zeuden gelako leiho azpian ozenki egin zuen ulu. Horrela, Pedro irten zen ahatea eta katua salbatzera. Sukaldean sartu eta jana eman egin zien.

Orain guztiak elkarrekin etxean bizi omen dira, eta otsoak oilategiko oiloak jaten jarraitzen omen du .

## 7. Helburu didaktikoak eta curriculum edukiak

### 7.1. Helburu didaktikoak

- Zuzeneko musikaz arretarekin eta isilik gozatzea.
- Kalitatezko musikarekin eta antzezpenekin ohitze.
- Entzunaldian zehar arduratsu jokatzeko, eta jokabide zuzena edukitzea.
- Ipuinaren zati bakoitzaren arabera musika konposizioek daukaten aldaketa entzutea.
- Ipuin sinfonikoaren osteko berehalako iritziak ahoz aipatzea eta komentatzea.
- Musika-tresnen ozentasuna entzutea eta desberdintzea.

### 7.2. Curriculum edukiak

Kontzeptu-edukiak	Prozedura-edukiak	Jarrera-edukiak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egilea: Sergei Prokófiev.</li> <li>- Lana: “Pedro eta otsoa”.</li> <li>- Orkestratutako ipuina.</li> <li>-Musika-tresnak: mihi-bikoitzekoak: oboea eta fagota; buruntzikoak: tronpa; alakakoak: zeharkako txirula; perkusiokoak: dunbala eta tinbalak; harikoak: biolina, biola, biolontxelo eta kontrabaxua.</li> <li>- Musika konposizio eta pertsonaia.</li> <li>- Musikariak, zuzendaria, eszenografia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsonaia batzuetatik abiatuta, argumentu hari bat sortzea.</li> <li>- Ipuinaren pertsonaia bakoitzarentzat musika-tresnak eta konposizioak aukeratzeko intuizioa.</li> <li>- Konposizioak eta ipuinaren pertsonaiekiko lotura buruz ikastea.</li> <li>- Zuzenean musika entzun ondorengo berehalako iritziak hausnartzea eta ahoz azaltzea.</li> <li>- Musika-tresnak ikustea, entzutea eta antzematea.</li> <li>- Egilearen izena, ipuinaren izena eta entzunaldiari buruzko datuen bat buruz ikastea</li> <li>- Doinuak ezagutzea eta alderatzea/ “Pedro eta otsoa” ipuinaren gaiak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egile eta lan berriak ezagutzeko interesa.</li> <li>- Arreta erakusteko eta isilik egoteko ardura.</li> <li>- Ikaskideekiko begirunea, entzunaldia eta zuzeneko kontzertutik eratorritako lanak errazteko.</li> <li>- Kontzertu publikoetara joateko arauak errespetatzea.</li> <li>- Iritzi kolektiboetan, argumentuetan eta parte hartzean interesa edukitzea.</li> </ul>